

## AITA ISIDRO BAZTARRIKA (1931-1992)

Hirurogoi urte zituen aita Isidro Baztarrika-k, joan den martxoaren 24-an Estibalitz-en hil delarik.

Ataun-en sortua zen, hogeita hamaika-n, uztailaren 15-ean; eta, hamazazpi urtetan fraide-agintzez finkatu zen Lazkao-ko beneditar etxean.

Berrogeita hamabortzean apezturik, fraidegaien moldatzaile ta erakasle izendatu zuten, Erroma-n bi urtez ikasten egon ondoan.

Euskaraz idazteko eta mintzaldi egiteko dohain berezi bat agertu zuen; eta, berrogeita hemeretzi, bere lehen liburua argitarazi zuen: *Goazen Lurdes-a*.

Ordukoa dut haren lehen eskutitza: “Jakin det Lurdes-aldean zabiltzala edo ibili izan zerala beintzat; ta eskale natorkizu: arren! olerki bat egingo al diguzu Lurdes-ko Andra Mariari buruz? Asko edertuko luke gure liburutxo”. (Agorrak 12/57).

Igorri nion. Hark orduan

“Bai lan ederra, hasi zerala salmoak euskaratzen... Ea noiz bukatzen dituzun; eta hemengo euskeran zuretik jarriko ditugu guk.” (57-11-11).

Hitzak baino egintzak hobe zirela, etorri zitzaitan, Santamaria jaunarekin, Donostia-ko karrikaraino: nerekin ikusteko nolaz argitarazi euskal-salmoen zortzi ehun eta berrogeita hamasei orrialdetako gure liburua.

Baiona-ko apezpikutegian erakutsiak nituen euskal-samo horiek; eta, orduko elizkizunak izanik ere latinez, zorionak eman zizkidan... Zorionak bai, baina diru-laguntzarik ez.

Santamaria jaunaren eta aita Isidro-ren gomendiozko hitz batekin joan nintzen, Lekeitio-n zegoen andere Goiri baten ikusterat; bihotza zabalik hartu ninduen eta Bilbo-ko Castor Uriarte jaunaren ganat igorri, bi urterako diru-mailegu bat egin baizidan hark.

Egun hartan euria jauts-ahala ari zen Bilbo-ko karriketan; baina, aingeru begirale ta laguntzaile, atxeman nuen: aita Lino Akesolo.

— Salmoen liburua argitaratzeko behar nuena eskurat eman izan zitzaidanez geroz, *Ordorica* tegikoei eraman nien nere idazkia.

Argitaratu arte, haatik, dirua nori utz? Abertzale gazte baten eskuetan utzi nuen; eta, debrua ez baitago sekulan lo, nere diruzaina giltzaperat bildua izan zen... Zer egin? berriz ere, aita Isidrok eman fraide-lagun batekin, Bilborat joan. Giltzapeturaino sartu nintzen; eta, haren ahotik, jakin nuen: delako dirua segurean zela.

—Horiek hola, hirurogeita laueko martxoaren 17-an, euskal-apezak bildu zituen Baiona-ko jaun Apezpikuak; eta galdegin zuenean: “Liturgia berria euskaraz egiteko, non dituzue euskarazko salmoak?” Erantzun izan genuen: “Hona Salmoak, aita Lertxundi-k euskal-kantutan emanak”.

Azaroaren 18-an ardiesten zuten Erromako baimena. Ondoko urtean, aita Baztarrika-k gipuzkoeraturik, Gipuzkoako elizetan hedatzen ziren; aita Lino Akesolok bizkaieraturik, Bizkaiko elizetan.



Ordukotz, Estibaliz-ko fraidetxeari bizi emaiterat igorria zen aita Isidro. Handik idazten zidan:

“Aspaldi huntan ez dizut berri handirik bidali. Izan ere, orain ez naiz bizi Lazkao-n lasaitasunean. Oraindik etorri berriak, lan asko egiteko, etxea ere piska bat txukuntzen ari gera. Ta gainera jende asko etortzen da; ta hoieri ere zerbeit begiratu behar. Aurreko igandean bertan, goizetik baziren ehundik gora kotxe, oiñez ta motoz etorritako jendea kontatu gabe.

Neure euskal-lanak bazterrean utzi-ta dauzkat, oraingoz beintzat; tarteka-tarteka egiten det zerbeit: ezin-egon egin gabe... Ez dakit nola egin-arazi niñuzun zuk Euskaltzaindiaren laguntzaile; halere eskerrak zuri, zure asmo ona gatik.” (1965, epailak 31).

– Urte berean, Orixe-ri egin omenaldian, artikulu bat argitaratu zuen: “Orixe Jainko-billakari porrokatua”.

1968-ko urtean berriz: “Aditza, metodo nor-nori-nork”, Elvira Zipitria andereñoak Lazkao-ko gazteei erakatsi aditz-bidea baliatuz.

Haren idazlan gehienak Lazkao-ko *Jaunaren Deia*-an argitaratuak ditu; eta, datorren zenbakirako, badu artikulu bat, hil baino hogeit bat egun lehenago idatzia: “Gaxoekin otoitzean”.

Joan den irailaren 8-an, Estibalitz-en ikusi dugu dena kar, egun handi hartako elizkizunen sustatzaile. Hango fraideen eta Beloke-koen bazkaria bukatzerakoan, xutitu da. Etxeko nagusiar dagokion bezala, batetik bertzerat joan da, bakotxari bihotzeko hitz bat erranez. Hasi zait orduan: “Egon zenbeit egun, gurekin”. Ez diot baietzik eman; baina, lerro hauek idaztean, harekilako istan goxo bat iragan dudala iduri zait.

Aita Isidro, orroit Estibaliz-ko Amaren gizona zarella; orroit Estibaliz-ko Ama Euskal Herriko zaindaria dela; orain bazauden betirako bizian, harekin aipa Jainko Jaunari Euskal Herria, bai-eta... Euskaltzaindia.